



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

fea2a528a0ee244425359ffcaf3cb594fb2377cca3e9ba2ccdf478e89fdd646d

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO OTSAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

2021.02.25

Tolosako Udaletxean, 2021eko otsailaren hogeita bostean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)

Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)

Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)

Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)

Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)

Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)

Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU) bere izenean eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean.

Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)

Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)

Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2021eko urtarrilaren 28ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko langileek modalitate ez presentzian, telelanaren bidez, jarduteko araudiari.
3. Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudiari.
4. Hasierako onarpena ematea zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari eta prezio publiko berria onartzea. 3.1.9 eranskina. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
5. Hasierako onarpena ematea Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari. Hondakinen bilketa.
6. Hasierako onarpena ematea herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagokien tasen ordenantza fiskalaren aldaketari.
7. Onartzea Tolosako Udalaren zentro sozio-kulturala ustiatzeko zerbitzu-kudeaketaren kontratua luzatzea eta covid-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz egindako indemnizazio eskaera.
8. Mozioa: 2021eko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna.
9. Galderak eta eskaerak.

Udal idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era erdi presentzian egingo dela, honako modu honetan:

- Alkateak, udal talde politikoetako bozeramaileak (Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, eta Jose M. Villanueva Telleria), eta Udaleko idazkaria eta kontuhartzailea batzar aretoan daude
- Gainontzeko korporazioko kideek, zoom bidez, era telematikoa hartuko dute parte.

Udalbatzaren osoko bilkura osatzeko lege-oinarria honako hau da: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean xedaturikoa: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones*



excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek aho batez berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzian egingea.

Idazkariak adierazi du 2/2016 legeak, Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak, 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ander Figuerido Zubiria zinegotziak bere botoa eskuordetzan eman diola Kristina Pelaez Errazkin zinegotziari, azken honek balia dezan. Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman ondoren, udal idazkariak EH-BILDU udal taldeak aurkeztu dituen ondorengo bi idatzi hauen berri eman die udalbatzarkideei.

Erregistro zenbakia: 2021-01720, 2021eko otsailaren 10ekoa.

EHBILDUko zinegotzia den Ander Figuerido Zubiriak, aitatasun atsedenaldi egoeran aurkitzen denez, horrek iraun bitartean, bere boto eskubidea eskuordetzen dio Kristina Pelaez Errazquin, Tolosako Udalbatzako organoen bilkuretan.

Tolosako EH-BILDU udal taldeko bozeramaile ordearen aldaketa, Kristina Pelaez Errazquin zinegotzia izendatuz.



Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira

**1. AKTA HAU ONARTZEA:
2021EKO URTARRILAREN 28KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA
ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK

**2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO LANGILEEK
MODALITATE EZ PRESENTZIALEAN, TELELANAREN BIDEZ, JARDUTEKO
ARAUDIARI.**

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

AURREKARIAK

Tolosako Udalak telelaneko araudi bat garatu nahi du, bere zerbitzura lan egiten duten langileen eskura jarriaz. Araudi honen helburua da arauak finkatzea udal langileek zerbitzua modalitate misto batean eman ahal izateko. Modu honetan, zerbitzua modalitate presentzialean eta ez presentzialaren (telelana alegia) artean banatuko da.

Arautegian, lehenik eta behin, telelanaren definizioa eta justifikazioa deskribatzen dira, batik bat teknologia berrien eta lan egiteko modu berrien garapenarekin lotuta daudenak, esate baterako, espedienteen kudeaketa elektronikoa. Telelanak dituen ezaugarriak ere definitzen dira, hau da, telelana antolaketa-modu gisa ulertu behar da, borondatezkoa eta modalitate presentzialarekin konbinatu behar dena.

Telelana baimentzeko prozedura hainbat ataletan banatzen da, besteen artean, ekipamendu teknikoa eta lan jarduna gauzatzeko baldintza zein laneko arriskuen prebentzio betekizunak edo izaera pertsonaleko datuak babesteko obligazioak leudeke.

Bukatzeko, telelana sistema hau martxan jarriko da arautegia onartu eta bere edukia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera; behin lan sistema berri hau martxan jarri ondoren, ezarpen honen jarraipena eta ebaluazioa egingo da, eta bertan egokitzapenak eta hobekuntzak islatzen joateko aukera egongo da, etorkizuneko beharrak eta zerbitzuak horrela exijitzen duten heinean.



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 47 bis artikuluan honela definitzen du telelana: “aquella modalidad de prestación de servicios a distancia en la que el contenido competencial del puesto de trabajo puede desarrollarse, siempre que las necesidades del servicio lo permitan, fuera de las dependencias de la Administración, mediante el uso de tecnologías de la información y comunicación”.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, administrazio publikoetan enplegatu publikoen lan baldintzei eragiten dieten arauak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, gai hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2021eko otsailaren 2an egindako bileran.

ONARTZEKO PROZEDURA

Arautegi honek udal ordenantza izaera du, eta udal ordenantzak onartzeko prozedura apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.1 a) artikuluan arautzen da, hain zuzen ere, hauxe da jarraitu beharreko prozedura:

1. Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman.
2. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
3. Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betiko onartu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez badute, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko dute.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazquin.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



IRIZPENA

Lehenik.- Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko langileek zerbitzua modalitate ez presentzian, telelanaren bidez, jarduteko araudiari.

Bigarrenik.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki taulan eta Udaleko web orrian argitaratzea eta 30 lanegunetan jendaurrean edukitzea, erreklamazio zein iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin bere eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko langileek zerbitzua modalitate ez presentzian, telelanaren bidez, jarduteko araudiari (akta honen 1. eranskina).

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO ALDI BATERAKO LAN POLTSA KUDEATZEKO ARAUDIARI.

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

AURREKARIAK

Administrazio Publikoek bitarteko funtzionario zein aldi baterako lan kontratudun izaera duten enplegatu publikoak hautatzerako garaian, berezko hautaketa prozesu bat egin ondoren edota beste administrazio publiko bateko lan poltsa eskuratu ondoren, bertan agertzen diren izangaien hurrenkera errespetatuaz, Tolosako Udalak dituen aldi baterako beharrak betetzeko lan poltsa horiek erabiltzen ditu.



Erregelamendu honen helburu nagusia da aipaturiko lan poltsen kudeaketarako irizpide batzuk edukitzea, kudeaketa hori erraztu eta arintzeko, eta lan poltsen kudeaketaren inguruan egiten diren izapideetan ziurtasun juridikoa bermatzea.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30koak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan enplegu publikora iristea eta zerbitzu-harremana eskuratzea arautuko duten printzipio gidariak xedatzen ditu. Hala, funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko, ezartzen du erabili behar direla berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak (EKren 23. artikulua) eta Legeak berak finkatutako beste printzipio batzuk bermatzen dituzten prozedurak, hala nola:

- a) Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.
- b) Gardentasuna.
- c) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- d) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- e) Hautaketa-prozesuen edukiaren eta bete beharreko eginkizunen edo lanen arteko egokitasuna.
- f) Arintasuna, hautaketa-prozesuen objektibotasunari kalterik egin gabe.

Bitarteko funtzionarioen hautaketari dagokionez, aipatutako 5/2015 testu bateginaren 10. artikulua adierazten du hautaketa hori prozedura arinen bidez egin beharko dela, betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak errespetatuz.

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 33. artikulua —lege hori aldi baterako indarrean egongo da, harik eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina garatzen duen araudi autonomikoak indargabetzen duen arte—, ezartzen du bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratudun langileen hautaketa publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera zehazten diren prozeduren arabera egingo dela, ahalik eta arinen egin gainera, eta izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: titulazio-baldintza orokorrak eta lanpostuan jarduteko eskatzen diren gainerako baldintzak.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta aintzat hartuta batik bat Tolosako Udalaren tamainako toki-administrazio baten aldi baterako kontratazioaren bolumena eta bitarteko izendapenak, beharrezkoa da aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arau argi batzuk ezartzea, zeinek kontratazio horien kudeaketan beharrezkoa den arintasuna izango duten —kalterik egin gabe enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio horiek errespetatzeari—, eta kontratazio horiek kontrolatzeko eta babesteko beharrezkoak diren gardentasun-maila emango duten.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30koak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, bere 37.1 artikularen c) atalean xedaturikoaren arabera, administrazio publikoetan sartzeko sistemen irizpide orokorrak



finkatzen dituzten arauak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, gai hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2021eko otsailaren 2an egindako bileran.

ONARTZEKO PROZEDURA

Arautegi honek udal ordenantza izaera du, eta udal ordenantzak onartzeko prozedura apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.1 a) artikuluan arautzen da, hain zuzen ere, hauxe da jarraitu beharreko prozedura:

1. Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman.
2. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
3. Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betiko onartu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez badute, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko dute.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazquin.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehenik.- Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudiari.

Bigarrenik.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki taulan eta Udaleko web orrian argitaratzea eta 30 lanegunetan jendaurrean edukitzea, erreklamazio zein iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin bere eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudiari (akta honen 2. eranskina).

4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI ETA PREZIO PUBLIKO BERRIA ONARTZEA.
3.1.9 ERANSKINA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

Gaur egun, etxez etxeko zerbitzuaren ekarpena zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen 2.1.15 eranskinean arautzen da.

Baina, etxez etxeko laguntza-zerbitzua Udalak prezio publiko bat ezartzeko aukera ematen duen zerbitzua da, honako arrazoi hauengatik (11/1989 Foru Arauaren 43. artikulua eta 2/1990 Foru Arauaren 24. artikulua):

1. Ez da erabiltzaileak nahitaez eskatu edo jaso beharreko zerbitzua.
2. Sektore pribatuak ere ematen duen zerbitzua da.

Nahiz eta zerbitzuaren zati bat enpresa kontratista baten bidez ematen den zerbitzu-kontratu baten bidez, Udalak kudeatzen ditu eskabideak, altak, bajak, zerbitzuaren gorabeherak eta zerbitzuaren kontraprestazioaren likidazioa eta diru-bilketa. Beraz, gure ustez, ezarritako ondare-prestazioa ez da prezio pribatua, prezio publikoa baizik.

11/1989 Foru Arauaren 47. eta 49. artikuluetan eta 2/1990 Foru Arauaren 25. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera:



a) Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa zerbitzua ematen hasten denetik sortzen da. Ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

b) Prezio publikoen zenbatekoak zerbitzuaren kostua estali beharko du gutxienez. Hala ere, hala gomendatzen duten arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean, prezio publikoak kostuaren azpitik ezarri ahal izango dira.

11/1989 Foru Arauaren 50. artikulua araberak, prezio publikoak ezartzea edo aldatzea Osoko Bilkurari dagokio.

2/1990 Foru Arauaren 26. artikulua araberak, prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko edo aldatzeko proposamenekin batera memoria ekonomiko-finantzario bat aurkeztu beharko da, zenbatekoa eta kostuen estaldura-maila justifikatzeko.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 Foru Araua erabilita, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen 2.1.15 eranskina deuseztatzea.

BIGARRENA.- Etxez etxeko zerbitzua arautzen duen prezio publikoaren ordenantza aldatzea eta eranskin hau sartzea:



3.1.9 ERANSKINA. ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

1.- Esparrua

Arautegi hau etxez etxe laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa, izan beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa, izan beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

- Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:
- Etxez etxe laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.
- Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkariaren pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkariaren pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.
- Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokioken prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Prezio publikoa

Gehieneko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei: 15,00 euro/orduko.



4.- Ekarpenen koadroa

Erabiltzailearen ekarpena gehieneko prezio publikoaren portzentai bat izango da eta aplikatu beharreko ehuneko hori ahalmen ekonomikoaren arabera izango da.

Ahalmen ekonomikoa zerbitzuaren erregelamenduak II Eranskinean jarritako irizpideak erabiliz kalkulatu da.

Erabiltzaileak egin beharreko ekarpena honako ekarpen taula honen arabera zehaztuko da:

Ahalmen ekonomikoa	Prezioa: gehieneko prezio publikoaren %
LAGSren \leq %75	% 1,5
>%75-78	% 4
>%78-81	% 8
>%81-94	% 15
>%94-110	% 24
>%110-125	% 35
>%125-140	% 48
>%140-155	% 61
>%155-170	% 74
>%170-190	% 87
LAGSren >%190	% 100



5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehieneko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren % 100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehieneko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren % 100ari dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren % 40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren % 30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

7.- Kobrantsa

Zerbitzua hileroko kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

Ordaintzeko obligazioa zerbitzua ematen hasten denetik sortzen da.

Ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli egin beharko da.

HIRUGARRENA.- Aldaketa horiek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dituzte eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean sartuko dira indarrean.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin bere eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari eta prezio publiko berria onartzea. 3.1.9 eranskina. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI. HONDAKINEN BILKETA.

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

Proposamen hau jaso da udal gobernutik, Covid-19ak sortutako osasun-krisiaren ondorioz perimetroaren itxiturak, edukieren murrizteak eta hartu diren beste hainbat neurrik jarduera ekonomikoan izan duten eraginagatik:

Hondakinen bilketa eta ezabaketari dagokion tasan % 100eko hobaria onartzea gazte lokalei eta ordenantzaren eranskineko 1., 2. eta 3. multzoko jardueretan dauden lokalei, hauei izan ezik:

- anbulatorioa
- ertzaintza, kuartela, epaitegia
- bankuak
- suhiltzaileak

11/2020 Foru Dekretu-Arauk, abenduaren 1ekoak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak, honako hau dio:



“ 18. artikulua. Tasen hobariak.

*2021ean tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek **bereziki eragindako kolektibo**ei aplikatu ahal izango zaie. Artikulu honetan aipatutako hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete”.*

Kontuhartzailtza Sailak dagokion txostena egin du. Bertan, 2021. urtean bereziki kaltetua nor izan den oraindik ez dakigunez, ez da egokia ikusten aipatutako hobariak modu orokorrean onartzea, ezta erabatekoak izatea ere.

Egutegi fiskala aldatzea proposatu du Kontuhartzailtza Sailak, zabor-bilketaren tasak kobratzeko epealdiak atzeratuz. Atzerapen horrekin, informazio gehiago edukiko da, eta benetan kaltetuak izan direnei hobaria emateko aukera izango genuke hemendik hilabete batzuetara.

Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako kontsultaren erantzuna jaso genezake, "bereziki eragindako kolektiboak" kontzeptuaren interpretazioari buruzkoa.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea behean agertzen diren ordenantzen aldaketei, 2021. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua erabilita:



1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK.

2.1.6 eranskinean, hondakinen bilketa eta ezabaketari dagokionean, hobari hau onartzea proposatzen da:

“ Eranskineko 1., 2. eta 3. multzoko jardueretan dauden lokalek eta gazte lokalek, 2021. urterako, % 100eko hobaria izango dute Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz. Hobaria ez zaie aplikatuko 1. multzoko ondorengo jarduera hauei:

- anbulatorioa
- ertzaintza, kuartela, epaitegia
- bankuak
- suhiltzaileak

Hobari honek 2021. urteko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izango du”.

BIGARRENA.- Aldaketa horiek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dituzte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin bere eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza aldaketari. Hondakinen bilketa.



6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

Proposamen hau jaso da udal gobernutik, Covid-19ak sortutako osasun-krisiaren ondorioz perimetroaren itxiturak, edukieren murrizteak eta hartu diren beste hainbat neurrik jarduera ekonomikoan izan duten eraginagatik:

“1.- Azoketako saltokien kontzeptuan, jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu bereziari dagozkien tasetan % 100eko hobaria onartzea.

2.- Terraza eta instalazio osagarrien kontzeptuan, jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu bereziari dagozkien tasetan % 100eko hobaria onartzea”.

11/2020 Foru Dekretu-Arauk, abenduaren 1ekoak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak, honako hau dio:

“ 18. artikulua. Tasen hobariak.

*2021ean tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauk II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal taseen zenbatekoaren ganean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek **bereziki eragindako kolektiboei aplikatu ahal izango zaie. Artikulu honetan aipatutako hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete**”.*

Kontuhartzailtza Sailak dagokion txostena egin du. Bertan, 2021. urtean bereziki kaltetua nor izan den oraindik ez dakigunez, ez da egokia ikusten aipatutako hobariak modu orokorrean onartzea eta ezta erabatekoak izatea ere.

Egutegi fiskala aldatzea proposatu du Kontuhartzailtza Sailak, azoken tasak kobratzeko epealdiak atzeratuz. Atzerapen horrekin, informazio gehiago edukiko da, eta benetan



kaltetuak izan direnei hobaria emateko aukera izango genuke hemendik hilabete batzuetara.

Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako kontsultaren erantzuna jaso genezake, "bereziki eragindako kolektiboak" kontzeptuaren interpretazioari buruzkoa.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea behean agertzen diren ordenantzen aldaketei, 2021. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 Foru Araua erabilia:

2.2. HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALAK

2.2.3 eranskinean, azokari dagokionean, hobari hau onartzea diktaminatu da:

"% 100eko hobaria izango dute azokek 2021. urte osoan, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz.

Hobari honek 2021. urteko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izango du".

2.2.5 eranskinean, Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziari dagokionean, hobari hau onartzea diktaminatu da:



“% 100eko hobaria izango dute, 2021. urtean, eranskinen 2. puntuak dauden zergadunek, hau da, terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan: mahaiak, aulkiak, upelak edo antzekoak.

Hobari honek 2021. urteko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izango du”.

BIGARRENA.- Aldaketa horiek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dituzte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin bere eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagokien tasen ordenantza fiskalaren aldaketari.

7. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ZENTRO SOZIO-KULTURALA USTIATZEKO ZERBITZU-KUDEAKETAREN KONTRATUA LUZATZEA ETA COVID-19AREN PANDEMIK SORTUTAKO EGOERAREN ONDORIOZ EGINDAKO INDEMNIZAZIO ESKAERA.

2021eko otsailaren 18ko Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Kontratuaren helburua	Tolosako Emeterio Arrese kaleko 2.eko ekipamenduen eraikinean dagoen Udalaren zentro sozio-kulturalaren taberna zerbitzua ustiatzeko zerbitzu-kudeaketa kontratua.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila



II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2005eko abenduaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, Udalbatzak onartu zuen zentro sozio-kulturalaren taberna zerbitzua ustiatzeko kontratua arautuko zuen administrazio baldintza partikularren plegua eta hasiera eman zion lizitazioari. Bertan, Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzen zuen behin betiko esleipena egiteko ahalmena. Pleguaren 9. klausulan hau zehazten da: "Esleipena, alkateak edo Gobernu Batzordeak erabakiko du."

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006ko otsailaren 10ean (28 zk), ezaugarri hauekin:

- Lizitazio prezioa: gutxienez, hileko 100 euro.
- Epea: Hamabost urte, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.

Hirugarrena.- 2006ko martxoaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak aipatutako kontratua esleitu zion IGNACIO JOSÉ ECHEVERRIA INSAUSTI jaunari, honako baldintza hauetan:

- Prezioa: 100 euro hileko.
- Iraupena: Hamabost urte, 2006ko apirilaren 28tik kontatzen hasita, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.
- Gasaren kostua kontratistaren kargura.
- Argindarraren gastuen % 50 esleipendunak ordainduko du, baina bost urte igaro ondoren, harekin igoera negoziatuko da.

Laugarrena.- 2006ko apirilaren 7an kontratua formalizatu zen.

Bosgarrena.- 2021eko apirilaren 27an kontratua bukatzen denez, Etxeberria Insausti jaunak 2020ko urriaren 26an eskaera sartu zuen udal erregistroan, 2020/8585 zenbakiarekin, kontratuaren luzapena eskatuz.

Seigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak 2020ko azaroaren 4an egindako txostenean, kontratuaren luzapena eta kanona salbustea eskatzen du. Halaber, Hirigintza Sailari zuzendutako beste hainbat eskaera egiten ditu.

LUZAPENA

III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, 2000ko ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuaren Legeari buruzko testu bategina onartzen duena.

Luzapenari dagokionez, Baldintza Tekniko eta Ekonomikoen Pleguaren karatularen 3. puntuak jasotzen zuen kontratuaren hasierako iraupena hamabost urtekoa izango zela. Bestalde, puntu berean, kontratu horren epea beste bost urtez luzatu ahal izango zela xedatzen zen.



Pleguaren 9. klausulan hau zehazten da: “Esleipena, alkateak edo Gobernu Batzordeak erabakiko du.”.

Halaber, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina onartzen duenak hau azaltzen du 157. artikuluan:

157. artikulua.- Iraupena.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua ezin da izan betiko edo mugarik gabea; nahitaez finkatu behar dira administrazio-klausula zehatzen agirian bai kontratuaren iraupena eta bai izan ditzakeen luzapenena ere; nolahi ere, epe osoak, luzapenak barne hartuta, ezin izango ditu denbora-tarte hauek gainditu:

a) Berrogeita hamar urte, baldin eta obrak egiteko eta zerbitzu publikoa ustiatzeko diren kontratuak badira; salbuespen izango da udal ekonomia mistoko sozietateak kudeatutako elikagaietako merkatua edo handizkako lonja nagusia, kasu horretan 60 urtera artekoa izan ahal izango baita epea.

b) Hogeita bost urte, baldin eta osasun-zerbitzuak ematearekin zerikusirik ez duen zerbitzu publikoa ustiatzeko diren kontratuak badira.

c) Hamar urte, baldin eta, osasun-zerbitzuak emateko xede duen zerbitzu publikoa ustiatzeko kontratuak izanik, zerbitzu horiek a) idatz-zatian jasota ez badaude.

Kasu honetan, proposatzen den luzapenak ohiko izaera du eta aipatutako pleguan aurreikusten da kontratazio organoak duela hura luzatzeko ahalmena:

Kontratuak hamabost urte iraungo du. Gero kontratu hori luzatu ahal izango da, beste bost urte.

Beraz, aurrekoa aintzat hartuz, ez dago eragozpenik eskatutako eta pleguetan aurreikusitako luzapena egiteko.

INDEMNIZAZIOA ESKATZEA

IV.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- Negozio juridikoaren izaera

Tolosako Emeterio Arrese kaleko 2.eko ekipamenduen eraikinean dagoen Udalaren zentro sozio-kulturala, arestian aipatu bezala, zerbitzu publikoko eraikina da, horrela jasota baitago udal inbentarioan S00296 eta S00297 matrikulekin (Naturaleza: servicio público; Est. Funcional: servicios sociales).

Eraikinean hainbat lokal daude eta horietako bakoitzak erabilera bat du, eta Udalarena den zentro soziokulturala zerbitzu publikoari lotuta dago. Beraz, lehenengo gaia da zerbitzu publiko horren ustiaketari aplikagarria zaion legea definitzea. Horretarako, legeriak bi mota aurreikusten ditu, alde batetik, izaera administratiboa duten kontratuak, eta bestetik, berriz, ondare izaera dutenak.



Administrazio-kontratuaren eta herri-jabariaren emakidaren arteko aldea: helburu publikoa vs interes pribatua. Kontratu baten kalifikazioan, elementu mugatzailea negozioaren kausak zehazten du, eta administrazio-kontratu bat eta jabari publikoko emakida bat bereiz daitezke, interes publiko bat edo helburu publiko bat lortzeko zerbitzuaren lehentasunaren arabera, interes pribatuaren aurrean (ondare hutsa), jabari publikoko ondasun baten okupazio pribatiboa eskatzen duen negozio edo jarduera baten instalaziotik.

Kontratazioko Aholku Batzordeek eta jurisprudentziak adierazitako irizpidea da, administrazio-kontratu baten edo herri-jabariko emakida baten aurrean gaudenean, interes publikoa edo helburu publikoa lortzeko zerbitzuan dagoen lehentasunari erreparatu behar zaiola herri-jabariko ondasun baten okupazio pribatiboa eskatzen duen negozio edo jarduera baten instalazioaren interes pribatuaren aurrean.

Aragoiko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen apirilaren 6ko 1/2011 Gomendioak ohartarazten duenez, **kontratu baten kalifikazioan negozioaren arrazoi aplikatu behar da, elementu mugatzaile gisa.** Negozio juridiko bakoitza banan-banan aztertu beharko da, Administrazioak negozio horrekin lortu nahi duen kausa edo helburua zein den zehazteko, ondare hutsetik haragoko helburu publiko bat zegoela edo ez zegoela ebatzi ahal izateko, eta, kasu horretan, harremana kontratu-helburu gisa kalifikatu ahal izateko.

SPKLTBn (TRLCSP) eta PAPLn (LPAP) jasotako kontratu-legeriak eta ondare-legeriak, hurrenez hurren, administrazio-jardueraren kasu desberdinak jasotzen dituzte, eta, beraz, lortu nahi den helburu publikoa eta arrazoi esplizitua dira negozio bat kontratu edo ondare gisa kalifikatuko dutenak.

Lehenengoa (kontratua) helburu publiko bat lortzeko izango da, eta interes publiko hori nagusituko da lortu beharreko zerbitzuan (zerbitzu hobea eskaintzea, nahiz eta hartzailea eta ordaintzailea erabiltzaile pribatua izan); bigarrena (ondare-emakida), berriz, negozio bat instalatzeko interes pribatua nagusituko da, baldin eta negozio horrek herri-jabariko ondasun bat lagatzea eskatzen badu, lagatako espazioa okupatzen duen partikularraren onurarako. Herri-jabariko ondasunak erabiltzea planteatzen denean, kontuan izan behar da jabari publikoko higiezinean egin beharreko jarduera zerbitzu-prestazio gisa hartu ahal izango balitz, lortu nahi duten helburu publikoagatik, Administrazioaren ondasun baten erabilera pribatibo gisa baino gehiago, orduan kontratu-araubidea erabili beharko litzatekeela.

Gogora ekarri du Aragoiko Erkidegoko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen maiatzaren 30eko 13/2018 txostenean ezarritako doktrina:

En el caso de la atribución de facultades de ocupación y explotación de inmuebles públicos por particulares, particularmente en el caso de bares y cafeterías situadas en edificios o instalaciones públicas, la configuración como contrato de carácter patrimonial o como contrato administrativo depende de la causa del contrato y, en concordancia con



ello, con la fijación de condiciones para la explotación por parte de la Administración. La finalidad de dar servicio a los usuarios de la instalación, junto con la fijación de condiciones de prestación, como las relativas a horarios, servicios, productos o precios, entre otros, son claros indicios de la naturaleza administrativa del contrato.

Aurrekoa aintzat hartuz, bi figura juridikoak ezberdintzeko, jurisprudentziak eta epaitegi administratiboek kontratazioaren “kausa” edo zergatia hartzen dute oinarri:

- Hori ezartzeko, beraz, antolamendu-aldaketa bat egin behar da administrazio publikoen prozesuen kudeaketan.
- Halaber, beste onura batzuk ekar ditzake: lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko hobekuntzak, gogobetetasuna, emaitzetara bideratutako kudeaketa, eraginkortasuna hobetzea, denbora aurreztea, ingurumen-hobekuntzak (joan-etorri gutxiago), espazioen optimizazioa, etab.
- Teknologia berrien eta lan egiteko modu berrien garapenarekin lotuta dago (administrazio elektronikoa, izapideen eskuliburuak, espedienteen kudeaketa elektronikoa, partekatutako espazio birtualak, etab.).

Bigarrena.- Telelanaren ezaugarriak

- Urrutiko lanaren modalitatea, telelana deritzona, zerbitzuak emateko antolaketa-modu gisa ulertu behar da. Hori dela eta, helburuak finkatzearekin, aldizka zereginak ezartzearekin eta emaitzen etengabeko bilakaerarekin lotuta egon behar du plana abian jartzeak.
- Zerbitzua telelanaren bidez emateko, berariaz baimendu beharko da. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuak arautzen duenak, 47 bis artikuluan xedatutakoaren arabera, telelana ez da langilearen eskubide bat, berariazko baimena behar baitu. Hala ere, hainbat kasutan, eskumena duen erakundeak agindu edo gomenda dezake distantziaz lan egiteko modalitate hau.
- Aurrez aurreko lanaldiarekin bateragarria izan behar du, alegia, telelana eta aurrez aurreko lana konbinatu behar dira.
- Borondatezkoa izango da, arau-xedapen batek agintzen ez badu.



- Telelana baimentzeko edo ukatzeko prozedura irizpide objektiboetan oinarrituko da

Hirugarrena.- Telelanaren helburuak

- Lana sustatzea ezarritako helburuen arabera, eta ez hainbeste lantokian emandako denboraren arabera.
- Lanaren kalitatearekiko konpromisoa eta langileen motibazioa areagotzea.
- Enplegatu publikoen jarduna ebaluatzeko metodologiak eta programak egiten laguntzea.
- Administrazioaren modernizazioan, digitalizazioan eta konektibitatean aurrera egitea.
- Bizitza pertsonala eta familiarikoa uztartzea lana etxetik egiteko malgutasunaren bidez, hori guztia zerbitzuaren kantitatea eta kalitatea murriztu gabe.
- Erantzunkidetasuna sustatzea eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa bermatzea.
- Langileen joan-etorrien guztizko denbora murriztea.
- Telelana erabiltzea laneko arriskuak prebenitzeko mekanismo gisa osasun-larrialdietan.

TELELANAREN UDAL ARAUTEGIA

Lehena.- Aplikazio eremua.

Araudi hau aplikatuko zaie Tolosako Udaleko udal langileei, bai funtzionarioei, bai lan kontratudunei, baldin eta lanpostuaren ezaugarriak bateragarriak badira lan modalitate honekin.

Bigarrena.- Telelanaren bidez lanean aritu daitezkeen lanpostuak.

Telelana egin ahal izango dute, zehaztutako prozeduraren arabera, honako funtzio/egitekoak betetzen dizuten lanpostu hauek:

- Proiektuen azterketa.
- Aholkularitza juridiko eta tekniko.
- Txostenak, araudiak eta laneko prozedurak egitea.
- Informazio-sistemen analisisa, konfigurazioa, mantentze-lanak eta euskarria.
- Dokumentuen itzulpena, idazketa, zuzenketa eta tratamendua.
- Informazio- eta komunikazio-sistemen kudeaketa.



- Aplikazio informatikoen garapena.
- Giza Baliabideetako Sailaren irizpide objektiboen baitan, telelanaren bidez bete daitezkeen bestelako eginkizunak.

Bestetik, aurrez aurreko lan modalitateak eta Udalak ezinbestekotzat jotzen dituen zerbitzuak derrigorrez lantokian bertan eman beharko dira, hauexek hain zuzen ere:

- Erregistro bulegoetako lanpostuak eta herritarrei zuzeneko arreta eta informazioa emateko lanpostuak, bai eta zerbitzua emateko orduan bertan egotea eskatzen duten lanpostuak ere, hau da, zerbitzua modu eraginkorren eskaintzen dela bermatzeko, langilearen presentzia fisikoa beharrezko duten lanpostuak.
- Udaltzaingoa.
- Brigadako lan taldea.
- Atezainak.
- Zerbitziburutza eta zuzendaritza, agintea, koordinazioa edo ikuskaritza duten lanpostuak. Hala ere, lanpostu horiei dagokienez, urrutiko lana ahalbidetuko da zeregin zehatzak egiteko (txosten konplexuak, azterketa berezia eskatzen duten ebazpen-proposamenak, etab.), eta, kasu bakoitzean, alde zuzeneko baimena beharko da.

Hirugarrena.- Telelana baimentzeko prozedura.

Udal langileak eskaera egin ondoren, zerbitzuburuak txosten baten bidez definitu eta zehaztu beharko ditu telelana bidez egin ditzakeen lanak. Txosten honetan honako alderdi hauek egiaztatu beharko dira;

- Telelanerako finkatutako helburu zehatzak, zerrendatuak eta definituak.
- Aste bakoitzean egin beharreko eginkizunak

Ondoren, Informatikako Sailak txosten tekniko bat egingo du baliabide telematikoen eta telelaneko lekuaren konektibitatearen bideragarritasunari buruz, eta, era berean, eskatzailearen funtzioak bete ahal izateko, konexio mota horren bidez eskatzen diren prestazio teknikoak garatzeko aukerari buruz.

Bi txosten horiek ikusi ondoren, Giza Baliabideetako Sailak zinegotzi delegatuari proposamena egingo dio telelanaren eskaerari buruz, dagokion ebazpena eman dezan.

Dena den, Antolaketako zinegotzi delegatuak egokitzapenak egin ahal izango ditu, zerbitzu beharren arabera.

Sail bakoitzean, gehienez ere honako langile hauek arituko dira telelanean:

- Bi langile arte: % 50
- Hiru langile arte: % 33.



- Lau eta zortzi langile bitartean: % 25.
- Zortzi langiletik gora: % 20.

Lanaren ebaluazioari dagokionez, Tolosako Udaleko Zuzendaritza Taldeak finkatuko ditu ebaluazioko adierazleak, zerbitziburuek egindako proposamenak jaso ondoren, eta adierazle horiek izango dira lanen jarraipena neurtuko dutenak.

Ehuneko hauek aldatu ahal izango dira honako egoera hauetan:

- Salbuespenezko osasun-arrazoiak direla medio, agintari eskudunak urrutiko lan-erregimena beharrezkoa edo komenigarria dela erabakitzen duenean.
- Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak hala erabakitzen duenean.

Laugarrena.- Telelana ukatzeko arrazoiak.

Telelan-eskaerak ukatzen dituzten ebazpenak arrazoitu egin beharko dira. Ukatzeko arrazoiak honako hauek izango da:

- Dokumentu honetan agertzen diren baldintzak ez betetzea.
- Eskatzaileak behar bezala ez betetzea zerbitzuan dagozkion beharrak.
- Azpiegitura teknologikoen mugak edo telelanaren lekuan konektibitatea bermatzeko ezintasuna, informatikako teknikariaren txostenean egiaztatuta.
- Lanpostu aldaketa.
- Antolaketa-arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.

Bosgarrena.- Telelanerako baldintzak.

Telelanean jarduten duten langileek honako baldintza hauek izango dituzte:

1. Ekipamendu teknikoa.

- a) Telelanaren modalitatean aritzeko baimendutako langileek bete beharreko funtzioak betetzeko egokia den lan espazioa izan beharko dute.
- b) *Programan parte hartzen dutenek dagokien lana egiteko egokia den espazio bat izan beharko dute etxean edo telelana egiten duten lekuan, posta elektronikoa eta segurtasun-neurri egokiak dituena.* Beharrezkoak diren teknologia eta baliabideak jarriko ditu Udalak langileen eskura, etxetik modu egokian lana egin dezan.
- c) Udaleko sistema informatikoekin konektatzeko, administrazioak berak zehazturiko sistemak erabili beharko dira, komunikazioaren eskuragarritasuna, arintasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatu ahal izateko.



d) Zerbitzariarekin konektatzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko, telelangileek informatika zerbitzura jo ahal izango dute, zerbitzuaren ordutegiaren barruan. Halaber, Udaleko Informatika Zerbitzuak arreta emango die erabiltzaileei, beti ere arazoaren arrazoiak udal ekiporen bat eta instalazioren bat bada.

e) Udaleko Informatika Zerbitzuaren ardura izango da ekipo informatikoak egoki mantentzea. Telelanaren bidez lan egiten duten langileen ardura izango da ekipo horiek modu egokian zaintzea

2. Lanaldiaren antolaketa.

Udal langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Gehienez astean bi egunez eskaini ahal izango da zerbitzua modu ez-presentzialean, telelanaren bidez. Gainerako egunetan, modu presentzialean eta ohiko lan-ordutegian bete beharko da lanpostua.

a) Telelanaren iraupena gehienez urtebete arte luzatu ahal izango da. Idatziz, aurrez abisatuta ere, lanpostu presentzialera itzultzea ere erabaki ahal izango da, beti ere modu arrazoituan.

b) Arau orokor gisa eta osasun alarmaren baldintzak ematen ez diren bitartean edo egoera epidemiologiko larria deklaratu ez den bitartean, gehienez astean bi egunez eskaini ahal izango da zerbitzua modu ez-presentzialean, telelanaren bidez. Gainerako egunetan, modu presentzialean eta ohiko lan-ordutegian bete beharko da lanpostua.

c) Zerbitzuburuak zehaztuko ditu egun ez-presentzialak, aurrez bi aldeen artean adostu ondoren eta zerbitzua ahalik eta ondoen ematea irizpide izanik.

d) Zerbitzuaren edo langilearen beharrak aldatuz gero, egun presentzial eta ez-presentzialen asteko banaketa aldatu edo telelaneko asteko egun kopurua murriztu ahal izango da denbora batez, aurreko atalean adierazitako prozedura beraren bidez.

e) Zerbitzuaren premiazko beharrak direla tarteko –behar bezala justifikatu beharko dira behar horiek–, eta gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin, lantokira joan dadin eskatu ahal izango zaio telelanaren bidez zerbitzuak ematen dituen langileari.

f) Lanaldia aurrez aurreko lanerako dagoen berbera izango da, baina alde batera utzita hasiera eta amaiera. Nolanahi ere, aurrez aurreko lanarekin batera 08:30etik 14:00etara bitarteko nahitaezko ordu-epea ezartzen da. Lanaldian zehar etenik gabe mantendu beharko da konexioa, bai telematikoa, bai telefono bidezkoa.

f) Telelanaren bidez lan egiteko denbora amaitzean, aurrez esleitua zuen lanaldi presentziala bete beharko dute langileek.

3. Egin beharreko lanak eta lortu beharreko emaitzak.

Lanaldi ez-presentzialean egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak udal sail bakoitzeko arduradunak eta langileak adostuko dituzte. Zeregin horiek astero



berrikusi eta berrezarriko dira telelana indarrean dagoen bitartean. Zereginak dagokion arloan ezarritako helburuen programarekin lotu beharko dira. Lana ebaluatzeko, beharrezkoa izango da Zuzendaritza Taldeak onartutako adierazleak finkatzea.

Lanaldi ez-presentzian dagoen langile bakoitzak dokumentu bat bidaliko dio sail bakoitzeko buruari ostiraleko azken orduan, astean zehar egindako zereginen eta emaitzen berri emateko, onartutako adierazleen arabera.

Sail bakoitzeko buruak behar diren neurriak hartuko ditu lanaldi ez-presentzian edo presentzian dauden langileek modu koordinatuan lan egin ahal izan dezaten, eta, hala badagokio, astean zehar lanaldi mota txandakatuz, edo bakoitzaren eginkizunak zehaztuaz eta, hala badagokio, behar berrietara egokituz.

4. **Komunikazioa.**

Lanaldi presentzian edo ez-presentzian lan egiten duten langileen arteko komunikazioa nahitaezkoa izango da, bai telefono bidez, bai bideokonferentzia bidez.

Lanaldi ez-presentzian dauden langile guztien mahai gaineko telefonoa bakoitzaren telefono mugikorrera desbideratuko da lan-denboran, erantzuna eman dezan.

Halaber, mota honetan jarduten duen udal langilea 08:30etik 14:00etara, bai telefono bidez, bai modu telematikoan, prest agertu beharko du zerbitzuak eskatzen duen edozein izapide burutu ahal izateko.

5. **Datuen konfidentzialtasuna eta babesa.**

Udal langileak datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta zentzu honetan:

- Espedienteen konfidentzialtasuna bermatu beharko du. Beraz, langileak telelanerako erabiltzen duen ekipoa ezingo du beste inoren esku jarri.
- Egindako txosten zein proposamen idatzi edo proiektuak sarean gorde beharko dira derrigorrez.
- Ezingo ditu espediente fisikoak lantokitik atera.

6. **Laneko arriskuen prebentzioa.**

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak telelanaren modalitatea erabiltzen duten langileei beren jardueraren arriskuen ebaluazioa egiteko aukera emango die, bai eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan behar duten informazioa ere, laneko arriskuak saihesteko edo, saihestezinak badira, minimizatzeko eta behar diren prebentzio-neurriak aplikatzeko.



Era berean, langile horiek prestakuntza-saio batera joan beharko dute, eta bertan adieraziko zaie nola egokitu behar duten beren lanpostua administrazio-bulegoetatik kanpo, bai eta datuak bistartzeko pantailak dituzten lanpostuetako segurtasunari eta ergonomiari buruzko beharrezko nozioak ere.

Prestakuntza-saiora joatea nahitaezkoa izango da, eta langileek eskuratutako ezagutzak egiaztatu beharko dituzte, dagokion probaren bidez.

Telelanaren modalitateari atxikitako langileek arriskuen ebaluazioan aurreikusitako neurriak aplikatu beharko dituzte beti, bai eta Prebentzio Zerbitzuak emandako prestakuntza eta informazioa ere, beren jarduerari ez ezik, beren lanpostuaren diseinuari dagokionez ere. Hala ere, Prebentzio Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza emango dizkie telefonoz, behar dutenean. Prebentzio Zerbitzuak lanpostuan neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen badu, telelangileen arduraren izango da neurri horiek ezartzea.

7. Izaera pertsonaleko datuen babesari eta sinadura elektronikoa.

a) Telelanaren modalitate ez-presentzialaren bidez zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudia bete beharko dute eta behar den erreserba eta konfidentziasuna mantendu beharko dute lanpostua dela-eta ezagutzen dituzten gaiei buruz, modalitate presentzian lan egitean egiten duten modu berean.

b) Administrazioak zehaztuko ditu erabili beharreko sinadura elektronikoko sistemak, beti ere, gai horri buruzko araudia betetzen dela bermatuz.

Seigarrena.- Telelanerako jarraipen batzordea.

Telelanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, "Telelanerako jarraipen batzordea" eratuko da, Antolakuntza zinegotziak, idazkariak eta Giza Baliabideetako teknikariak osatuko dutena. Organo kolegiatu honen funtzioak hauexek dira:

- Sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta konponbideak proposatzea.
- Modalitate honetan lanpostuei buruz erabil daitezkeen irizpide orientagarriak ezartzea.
- Aurkezten diren zalantzak eta errekursoak ebazteko irizpena ematea.



TOLOSAKO
UDALA

2021IPLE0002

2. ERANSKINA

HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO ALDI BATERAKO LAN
POLTSA KUDEATZEKO ARAUDIARI.

ESKUB9d71048-781e-4aa0-a261-97ebe1312125



TOLOSAKO UDALAN ALDI BATERAKO LAN-POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA

AURREKARIAK

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30koak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan enplegu publikora iristea eta zerbitzu-harremana eskuratzea arautuko duten printzipio gidariak xedatzen ditu. Hala, funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko, ezartzen du erabili behar direla berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak (EKren 23. artikulua) eta Legeak berak finkatutako beste printzipio batzuk bermatzen dituzten prozedurak, hala nola:

- a) Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.
- b) Gardentasuna.
- c) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- d) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- e) Hautaketa-prozesuen edukiaren eta bete beharreko eginkizunen edo lanen arteko egokitasuna.
- f) Arintasuna, hautaketa-prozesuen objektibotasunari kalterik egin gabe.

Bitarteko funtzionarioen hautaketari dagokionez, aipatutako 5/2015 testu bateginaren 10. artikulua adierazten du hautaketa hori prozedura arinen bidez egin beharko dela, betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak errespetatuz.

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 33. artikulua —lege hori aldi baterako indarrean egongo da, harik eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina garatzen duen araudi autonomikoak indargabetzen duen arte—, ezartzen du bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratudun langileen hautaketa publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera zehazten diren prozeduren arabera egingo dela, ahalik eta arinen egin gainera, eta izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: titulazio-baldintza orokorrak eta lanpostuan jarduteko eskatzen diren gainerako baldintzak.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta aintzat hartuta batik bat Tolosako Udalaren tamainako toki-administrazio baten aldi baterako kontratazioaren bolumena eta bitarteko izendapenak, beharrezkoa da aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arau argi batzuk ezartzea, zeinek kontratazio horien kudeaketan beharrezkoa den arintasuna izango duten —kalterik egin gabe enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio horiek errespetatzeari—, eta kontratazio horiek kontrolatzeko eta babesteko beharrezkoak diren gardentasun-maila emango duten.

Horiek horrela, honako xedapen hauek ezartzen dira lan-poltsak kudeatzeko:

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1.- Araudi hau aplikatuko zaie Tolosako Udalean beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketari eta dagozkien prozesuen ondoriozko zerrenden kudeaketari, honako kasu hauen arabera:



- Bitarteko funtzionarioak izendatzea hutsik dauden karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko, edo titularra edo okupatzailea aldi baterako kanpoan dagoen kasuetan.
- Bitarteko funtzionarioak izendatzea aldi baterako programak gauzatzeko. Izendapenean, ahal denean, zehaztu behar dira programaren amaiera-data eta amaiera hori azaltzen duten inguruabarrak, eta izendapena beharrezko egiten duten beharrak.
- Bitarteko funtzionarioak izendatzea, zereginak metatzeagatik. Izendapenean, ahal denean, zehaztu behar dira aurreikusitako amaiera-data eta amaiera hori azaltzen duten inguruabarrak, eta izendapena beharrezkoa egiten duten beharrak.
- Aldi baterako lan-kontratuko langileen kontratazioak egitea.
- Karrerako funtzionarioak zerbitzu-eginkizunetan izendatzea, lanpostuak aldi baterako hornitzeko modu horren erregulazio juridikoarekin bateragarria den guztian.

2.- Araudi honetako xedapenak Tolosako Udalaren udal sozietateei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta Tolosako Udalaren lan-poltsak erabiltzen badituzte sozietate horietan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hornitzean.

3.- Nolanahi ere, erregelamendu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo indarrean dauden lan-itun eta akordioek udal langileen barne-sustapena sustatzeari buruz adierazitakoari.

4.- Araudi honetako xedapenak ez zaizkie udaltzainei aplikatuko, indarrean dagoen bitartean Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena Udaltzaingoaren oinarritzko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa bat sortzeko, kalterik egin gabe hitzarmen horretan Tolosako Udaleko udaltzainen lan-poltsa propioei buruz xedatutakoari. Tolosako Udalbatzak 2017ko abenduaren 27an onartu zuen hitzarmen hori.

2. artikulua. Jarduteko printzipioak.

Lan-poltsetak langileak hautatzeko, printzipio hauek errespetatuko dira:

- a) Deialdien eta lan-poltsak osatzeko baldintzen publikitatea.
- b) Berdintasuna, enplegu publikora sartzeko betekizun orokorren eta lanpostuaren betekizunen arabera.
- c) Meritua eta gaitasuna.
- d) Gardentasuna prozesuaren kudeaketan.

3. artikulua. Lan-poltsak kudeatzeko eskumena.

Lan-poltsen kudeaketa Udaleko Giza Baliabideetako Sailaren zeregina da, eta, bere kasuan, dagokion udal sozietatearena; nolanahi ere, sail horrek ikuskapen orokorra egin ahal izango die sozietateen jarduketei dagokienez, jarduketa horiek erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartzen direnean.

Bestalde, langileen ordezkariari eman beharko zaie sortzen diren zalantza eta arazoak eta haiei buruz hartzen diren ebazpenen berri.



4. artikulua. Lan-poltsak eratzea.

1.- Udal honetan hutsik dagoen edozein plazaren deialdiak lan-poltsa bat sortuko du, ariketa baztertzailer guztiak gaintzen dituzten oposizogileekin, dagokien oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera puntuazio-ordenaren arabera. Plaza jakin baten deialdiak sortutako poltsa bakoitza kategoriatan, talde, eskala, azpieskala eta mota berean lehendik indarrean dagoenaren gainetik egongo da.

2.- Halakorik ezean, Udalaren beste lan-poltsa batzuk erabili ahal izango dira, bete beharreko funtzioetan eta eskatutako titulazio-mailan antzekotasun garbia dagoenean, betiere hautatutako pertsonak, lanpostu horri dagokionez, eskatutako baldintzak betetzen baditu lanpostuen zerrendan.

3.- Lan-poltsarik ez badago, lanpostu jakin batzuk behin-behinean betetzeko berariazko poltsa bat sortzeko deialdia egin ahal izango da. Deialdi horiek ahalik eta arinen egin behar dira, betiere publikitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.

4.- Urgentziazko eta behar egiazatuengatik deialdi hori egiteko arrazoizko denborarik ez dagoenean, honela jardun ahal izango da:

- Lehenik eta behin, beste administrazio publiko batzuek erabiltzeko aukera aurreikusita duten administrazio publikoetako lan-poltsetara joko da, ordena eta irismen honekin:
 - Antzeko tamaina eta ezaugarriak dituzten beste udal batzuetako lan-poltsak.
 - IVAPen lan-poltsak.
 - Beste administrazio publiko batzuen lan-poltsak.
- Administrazio hauetan indarrean dauden lan-poltsetan hautagairik ez badago edo aurrez aipatutako lan-poltsa guztiak agortuta badaude, eta Giza Baliabideetako arduradunak txosten arrazoitua egin ondoren, enplegu-zerbitzu publikoetara jo ahal izango da azkenik (Lanbide eta SPEE). Kasu horretan, dagokion enplegu-zerbitzu publikoak proposatutako pertsonak, zeinek bete behar baitituzte lanpostu-zerrendan jasotako lanpostua betetzeko eskatzen diren oinarriko baldintzak, prozedura sumarioaren ondoren hautatuko dira, bat etorritan aipatutako berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin.

Bide horietako baten bidez izendatutako edo kontratatutako pertsonak lan-poltsan sartuko dira, eta lan-poltsaren azken tokian egongo dira lehen izendapena egitean edo lehen kontratua sinatzean, betiere praktiken ebaluazio-txostena aldekoa bada.

Atal honetan ezarritako hautaketa-moduren batean (Lanbide edo SEPE) lan-poltsa batean sartzeak indarra galduko du antzeko ezaugarriak dituen deialdi bat ebatzen denean edo lan-poltsa berri bat sortzen denean.

5. artikulua. Tolosako Udaleko lan-poltsa hautagai bat zein egoeratan egon daitekeen.

1.- **Lanerako prest.** Lan-poltsa bateko hautagaien zerrendan dago, aldi baterako zerbitzuak emateko deia zain.



Nolanahi ere, eskainitako izendapena edo kontratua sei hilabeteko tartean bi aldiz jarraian onartzen ez duen hautagaia – "aldi baterako baja" egoera ekar dezaketen kasu justifikatuak alde batera utzi gabe– "lanerako prest" gisa igaroko da dagokion lan-poltsaren azken lekura.

Era berean, berdin jokatuko da Tolosako Udalarekin edo haren edozein udal sozietaterekin enplegu-harremanean borondatez baja ematen duenarekin ere.

2.- **Lanean.** Araudi honen aplikazio-eremuan ematen ditu zerbitzuak. Egoera horretan dagoen bitartean, langileak honako hauekin lotutako lan-eskaintzak baino ezin izango ditu jaso:

- a) Beste enplegu-poltsa batzuk, okupazio-egoera eragin zuenaz bestelakoak.
- b) Erretiro partzialagatiko plaza bat betetzeko txanda-kontratuak.
- c) Aurrekoarekin berehalako jarraitutasuna duten kontratuak edo izendapenak, erregelamendu honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- d) Kontratuak edo izendapenak, inolako zalantzarik gabe eta beharra sortzen den unetik hasita, gutxienez urtebeteko iraupena izatea, izendapen horretatik zenbatzen hasita.

Dagokion kontratuaren/izendapenaren indarraldia amaituta, jardunean edo "lanean" dauden pertsonak "lanerako prest" egoerara igaroko dira berriro, eta jatorrizko zerrendan hasierako posizioa mantenduko dute, baina gerta daiteke hura indargabetu izana ondoren bat sortzeagatik, erregelamendu honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- **Ez-lokalizagarri.** Giza Baliabideetako Sailak, ofizioz, egoera horretan alta emango die bizileku- edo telefono-aldaketa ez jakinarazteagatik mezularitza-bidez bidalitako komunikazioei edo, hala badagokio, egiten zaizkien telefono-deiei erantzuten ez dieten lan-poltsa bateko hautagaiari. Egoera horretan ez zaio lan-eskaintzarik egingo hautagaiari. Helbidearen edo telefonoaren aldaketa ez jakinarazteagatik "ez-lokalizagarri" egoeran alta eman eta egoera horretan 3 hilabete baino gehiago daramaten hautagaiak dagokion lan-poltsaren azken lekura bidaliko dira, eta "ez-lokalizagarri" egoeran egongo dira, harik eta lokalizatzeko datu berriak jakinarazten dituzten arte. Hala ere, datu horiek jakinarazteak "lanerako prest" egoerara pasatzea baino ez du ekarriko, eta, beraz, ez da berreskuratuko jatorrizko lehentasun-hurrenkera dagokion lan-poltsaren barruan.

4.- **Aldi baterako baja.** Egoera horretara igaroko da:

- 1- Idatziz egiaztatzen duena lanerako ezintasun iragankorrean edo amatasunagatiko-aitatasunagatiko atsedenaldiran dagoela.
- 2- Idatziz egiaztatzen badu izendapen edo kontratu baten titularra dela beste administrazio edo erakunde batean, baldin eta, gutxienez, eskaintzen zaion iraupenaren eta dedikazio-erregimenaren berdina badu.
- 3- Izendapen edo kontratu bat ez onartzeko behar bezala justifikatutako arrazoiak alegatzen baditu. Ondorio horietarako, ez da arrazoi justifikatutzat hartuko, inola ere, kontratazioa edo izendapena aurreikusten den egunetan oporrak edo aisialdiko absentiak aurreikustea, salbu eta hautagaiak agiri bidez egiaztatzen badu enplegu-harremana onartzeak eragin diezaiokkeen kalte ekonomikoa.

15 eguneko epean "aldi baterako baja" egoerara igarotzeko arrazoiak egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten ez bada, hautagaiak eskaintza borondatez baztertzen duela ulertuko da, eta araudi honetan kasu horietarako ezarritako erregulazioa aplikatuko da.



Behin "aldi baterako baja" egoerara igarotzea eragin zuen arrazoia amaituta, interesdunak halaxe jakinarazi beharko dio Giza Baliabideetako Sailari 15 eguneko epean, dagokion justifikazio-dokumentazioa erantsita. Jakinarazpen hori egin arte edo dagokion egiaztagiriak aurkeztu arte, hala badagokio, ez zaio lan-eskaintzarik egingo hautagaiari.

5.- **Behin betiko baja.** Egoera horretara igaroko dira honako hauek:

1. Borondatez hala eskatzen dutenak.
2. Izendapen edo kontratu bat onartzen badute eta hartarako eskatzen diren titulazio akademikoko baldintzak betetzen ez badituzte. Nolanahi ere, behin betiko baja dagokion lan-poltsan bakarrik emango da.
3. Modu iraunkorrean ezgaituak izatea, erretiroa hartzeko legezko adina betetzea edo erantzukizun publikoak betetzeko behin betiko desgaituak izatea.

6. artikulua. Aldi baterako zerbitzu-eskaerak.

1.- Giza Baliabideetako Sailak luzamendurik gabe izapidetuko ditu, erregelamendu honetako xedapenekin bat etorritik, udal sailek zuzentzen dizkioten aldi baterako zerbitzuak emateko eskaera guztiak, baldin eta eskabide horiek bat badatoz unean-unean udal gobernu-organoek Langileak Ordezteko onartu dituzten Irizpide Orokorrekin.

2.- Udal sailletako arduradunek aldi baterako zerbitzuak emateko egiten duten eskaera Langileak Ordezteko Irizpide Orokor horietan xedatutakotik kanpo badago, Giza Baliabideetako arduradunak legezkoatasunari eta egokitasunari buruz egindako txostena beharko da eskaera izapidetzeko.

3.- Nolanahi ere, eskaerek, aintzat hartu ahal izateko, xehetasun eta argitasun osoz adierazi beharko dituzte honako alderdi hauek:

1. Bitarteko izendapenaren edo aldi baterako kontratazioaren beharra eragiten duten inguruabarrak.
2. Kontratazioaren izaera arrunta edo premiazkoa.
3. Zerbitzu-harremanaren gutxi gorabeherako denbora eta horrek dakarren lanaldiaren ehunekoa.
4. Izendapenaren edo kontratazioaren ardura duen pertsona fisikoa, udal sail horretakoa.

Aldi baterako lanpostu horrek bete behar duen zerbitzua ez badator bat lanpostuen zerrendan jasotako lanpostuekin, eskaerek informazio hau ere jaso beharko dute:

1. Egin beharreko eginkizun eta zeregin zehatzak.
2. Zer lanpostu bete behar den eta hura betetzeko baldintzak zehaztea:
 - a. Sailkapen-taldea eta -azpitaldea.
 - b. Eskatutako titulazioa.
 - c. Eskatutako hizkuntza-eskakizuna.
 - d. Proposatutako lanaldia eta ordutegia.
 - e. Lanpostuaren kokapena.
 - f. Lanpostua betetzeko premia instrumentalak.
 - g. Hautaketa-prozesurako edo kontratazioa edo izendapena gauzatzeko garrantzitsua den beste edozein alderdi.



Horretarako, Giza Baliabideetako Sailak egokitzat jotzen dituen eskabide-eredu normalizatuak gaitu ahal izango ditu, dagokien formatu elektronikoetan.

7. artikulua. Deitzeko irizpideak.

1.- Deiak beti egingo dira, kasuan kasuko poltsako lehentasun-hurrenkeraren arabera, hurrengo paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe. Udalean lanpostu bera betetzeko lan-poltsak badaude, lan-poltsa berrienak izango du lehentasuna, edozein dela ere poltsa horren jatorria.

Aldi berean hainbat izendapen edo aldi baterako kontratu eskaintzen badira, denak batera eskainiko dira, hautagaien lehentasun-hurrenkeraren arabera aukeratzeko.

2.- Kasuan kasuko lan-poltsan egin nahi den izendapenerako edo kontrataziorako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duen hautagairik baldin badago eta halakorik ez duten beste batzuk ere badaude, egiten diren deialdiek bigarrenengo hauek alde batera utziko dituzte. Aurrekoa gorabehera, lehen taldeko hautagairik ez badago eta egin beharreko kontratazioak edo izendapenak hizkuntza-eskakizun hori izatea eskatzen badu, Tolosako Udalak hizkuntza-eskakizun hori ez duten hautagaiengana jo ahal izango du, baldin eta beste lan-poltsa batzuetako hautagaiei ezin bazaie deirik egin, erregelamendu honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, betiere, proposatutako hautagaiak lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna baino hurrengo txikiagoa badu. Neurri horrek Giza Baliabideetako arduradunaren txosten arrazoitua eskatuko du, neurria salbuespenezkoa dela egiaztatzeko, eta Euskara eta Hezkuntza Saileko Burutzaren iritzia jasoko du.

3.- Lan-eskaintzen jakinarazpenak telefonoz, posta elektronikoz edo interesdunarekin berehala eta arin komunikatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez egingo dira. Eskaintzaren jakinarazpena egiteko, zerbitzu arrunten edo urgenteen artean bereziko da.

4.- Ohiko zerbitzuak emateko, Giza Baliabideetako Sailak gehienez hiru komunikazio- edo abisu-saiakera egingo ditu bi eguneko epean. Kontaktatutako lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo baztertu beharko du eskaintza. Harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada, edo eskaintza baztertzen bada, puntuazioaren arabera, zerrendako hurrengoari egingo zaio eskaintza.

5.- Presako zerbitzuen prestazioen kasuan, komunikazio- edo abisu-saio bakarra egingo da. Kasu horietan, eskaintza egiten den unean bertan onartu edo baztertu beharko da. Kontaktatzea lortzen ez bada, zerrendako hurrengoari helaraziko zaio eskaintza, sailkapen-hurrenkeraren arabera, beste izapiderik gabe.

6.- Justifikatzeko eta, hala badagokio, kontsultatzeko, indarrean dauden lan-poltsen erregistroa egingo da, bai eta hautagaiak aurkitzeko egindako ahaleginena eta/edo kontakturako izapideena ere, eta, hala badagokio, hautagaiek emandako erantzunena.



8. artikulua. Zerbitzuak ematen jarraitzea.

- Lanpostu bat hutsik dagoela deklaratu aurretik bitarteko funtzionario batek betetzen bazuen lanpostu hori, eta lanpostua uzteko legezko arrazoirik ez badago, funtzionario horrek lanpostuan jarraituko du, salbu eta Udalak lanpostuaren ezaugarriak aldatzea komeni dela erabakitzen badu, behin-behineko lanpostua ez betetzea erabakitzen badu edo udal langileen artean behin-behineko lanpostua betetzeko barne-deia egiten badu.

- Amatasun edo aitatasunagatiko lizentziak eta segidako oporrak edo bestelako lizentziak pertsona berak beteko ditu, baldin eta sekuentzialki, etenik gabe gertatzen badira.

- Lan-poltsa batetik datorren hautagai baten aldeko izendapena edo aldi baterako kontratua egin bada eta, hura amaituta, lanpostu bera gehienez 7 eguneko epean berriro betetzeko eskatzen bada, nahiz eta lanpostu hori betetzea lehenengo lanpostua sortu zuen arrazoiez bestelakoa izan, hasieran lanpostua bete zuen pertsona bera kontratatu edo izendatuko da, izendapen edo kontratu berriaren aurreikusitako iraupena sei hilabete baino gehiago luzatzen ez bada; beti ere, aurrez, dagokion saileko arduradunaren txosten arazoitua beharko da eta Giza Baliabideetako arduradunaren oniritzia.

9. artikulua. Bitarteko funtzionarioen praktikaldia eta lan-kontratu etako probaldia ebaluatze aldia.

Aldi baterako beharrak betetzeko izendatutako edo kontratatutako pertsonak ebaluazio-aldi bat gainditu beharko du. Gainditzen ez badu, kargutik kendu eta behin betiko baja-egoeran deklaratu da dagokion poltsan.

Ebaluazio-aldiak hiru hilabeteko iraupena izango du C taldeetako eta beste lanbide-talde batzuetako lanpostuetarako, eta sei hilabetekoa A1-A2 lanpostuetarako, lehen lanegunetik kontaktzen hasita.

Ebaluazio-aldiaren emaitza txosten batean jasoko du dagokion saileko arduradunak, eta izendatuaren edo kontratatuaren tarteko arduradunek egindako txostenetan oinarritu ahal izango da.

- Ebaluazioak honako irizpide hauek jarraituko ditu:
 - Lan-gaitasuna eta lan-errendimendua.
 - Erantzukizun- eta efizientzia-zentzua.
 - Ikaskuntzarako interesa, prestasuna eta ekimena.

1. Frogatutako gaitasuna honako hauei dagokienez:
 - a. Lantaldean integratzea.
 - b. Barneko eta kanpoko harremanak egokitzea.

Txostenak langileak ebaluatutako faktore bakoitzean izandako jarduna deskribatuko du, eta faktore bakoitza 1etik 10era kalifikatuko du. Kalifikazioa gai edo ez-gai izango da.

Txostenaren kalifikazioa ez-gai bada, Giza Baliabideetako Sailera bidaliko da, eta udal organo eskudunak espedientea irekiko du kontratatua edo izendatua dagokion poltsatik baztertzeko, eta 10 eguneko epea emango du alegazioak egiteko. Horren ondoren, dagokion ebazpena emango du, eta behin betiko baja-egoerara igaroko da, baldin eta lan-poltsatik kanpo uzten badute.



Ebaluazio-aldiko txostenen berri emango zaie langileen ordezkariari, ez-gai kalifikazioa badute.

10. artikulua. Lan-harremanaren amaiera.

Aldi baterako programak gauzatzearen ondoriozko bitartekotasun-kasuetan eta zeregin jakin batzuk garatzearekin lotutako aldi baterako lan-kontratazioetan, sail bakoitzeko arduradunek Giza Baliabideetako Sailari eman beharko diote bitartekotasuna edo dagokion kontratu-harremana amaitzeko aurreikusitako dataren berri, "lanerako prest" egoerara igarotzeko. Jakinarazpen hori, aurreikusi badaiteke, amaiera hori baino gutxienez 15 egun natural lehenago egingo da.

11. artikulua. Zerrendak argitaratzea.

Lan-poltsan sartzeko hautaketa-prozesua edo lan-poltsa sortzeko prozesu espezifikoak amaitu ondoren, horren emaitza Tolosako Udalaren www.tolosa.eus webgunean argitaratuko da. Lan poltsen iraupena lau urtekoa izango da, hura onartzen denetik zenbatzen hasita.

12. artikulua. Lan-poltsetako datuak beste administrazio publiko batzuei jakinaraztea.

1.- Datu pertsonalak babesteari buruzko legedian xedatutakoa betez, eta interesdunak berriazko baimena ematen badu, Tolosako Udaleko lan-poltsa jakin batean jasotako datuak beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, horiek aldi baterako kontratazioak edo izendapenak egin ahal izan ditzaten interesdun horien alde.

2.- Horrelako jakinarazpen bat beste administrazio publiko bati egiten zaionean, "lanerako prest" eta "aldi baterako baja" egoeran dauden hautagaiei dagozkien datuak baino ez dira emango, dagokion lan-poltsan dauden hurrenkeran.

13. artikulua. Betekizunak eguneratzea.

Lan-poltsak osatzen dituzten pertsonak edozein unetan eguneratu ahal izango dute beren lanbide-profila, geroagoko egiaztapenekin (hizkuntza-eskakizuna edo titulazioak, geroago lortuko dituztenak), baina horrek ez du berekin ekarriko lan-poltsan duten posizioa aldatzea; hala ere, kontuan hartuko da lanpostuaren baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko orduan. Eguneratze hori egiteko, baldintza egiaztatzen duen tituluaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko zaio Udalari.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

1.- Erregelamendu honetan ezarritako irizpideek, interesdunentzat onuragarriak badira, lehenetsia izango dute Tolosako Udalean gaur egun dauden lan-poltsetako edozein poltsaren kudeaketan, baita lan-poltsak sortzeko oinarri egokiek oraingoez bestelako kudeaketa-irizpideak ezarri dituztenean ere.

2.- Aurrekoa gorabehera, eta araudi honen 8.1 artikuluan xedatutakoa gorabehera, alkate-lehendakariari eta/edo saileko zinegotzi-delegatuari ahalmena ematen zaie, baldin eta, lan-poltsa bat sortzeko xedapenen arabera, lan-poltsa hori erabiltzeko arrazoia bada



aurreko beste lan-poltsa batean hautagairik ez egotea, eta jatorrizko lan-poltsako kideak bigarren deialdian aurkeztu ez badira, bi lan-poltsak bakar batean batzeko, aipatutako xedapenetan aurreikusitako erabilera-metodoaren ondoriozko lehentasun-ordena errespetatuz.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Xedapen hau indarrean jarri aurretik egindako izendapenek indarrean jarraituko dute, bertan aurreikusitako edozein arrazoirengatik amaitzen diren arte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IPLE0002-2020-02-25 Ohiko Osoko bilkurako akta/2020-02-25 Ohiko